

LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu.
- **1h 50 min.** dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

Proben ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa (gehienez)	Puntuazioa (gutxienez)
IRAKURMEN-PROBA Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. Testuen luzera guztira: 1.000 hitz gehienez.	50 min.	20	10
IDAZMEN-PROBA Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz-kopurua bete. Eskatutako hitz-kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.	60 min.	30	15

- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuretzat da**.
- **Ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan** egin.
- **Irakur itzazu** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena

1. HE

IRAKURMENA

■ 1. ariketa

Ondoren Xabier Leteri buruzko testua daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.
Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

XABIER LETE

Xabier Letek Donostiako Herrerako La Salle ikastetxean egin zituen ikasketak. Batxilergoa amaituta, Tarragonara joan zen ikasketa teknikoak egitera, baina ez zituen bukatu. Ikasi beharrean, irakurri eta zinemara joaten zen. Euskal Herrira bueltan, Pasaiaiko lantegi batean sartu zen, eta han hasi zen lehen poesiak idazten. Irakurzalea gazte-gaztetatik izan zen, eta gazterik hasi zen idazten ere. 1965ean, Zeruko Argia aldizkarian kolaborazioak argitaratzen hasi zen. Antzerki munduarekin ere harreman estua izan zuen, Oiartzungo Lartaun taldeko kidea baitzen. Julen Lekuona herrikidearen bitartez, Joxean Artze ezagutu zuen.

1965ean, Ez Dok Amairu proiektuaren sorreran hartu zuen parte. Taldearen izena Jorge Oteizak aukeratu zuen. Oteizak euskal kultura berreskuratzeko, diziplina artistiko guztiak bilduko zituen mugimendua sortu nahi zuen. Kantagintzaren kasuan, Ez Dok Amairuren eskutik, helburu horrek izan zuen erantzunik. Francoren diktadura-urteak ziren, garai ilunak, zalantzarik gabe. Egoerari buelta emateko gogo nabari zen euskal gizartean, eta nahi horri erantzunez kantua oihu bihurtu zen.

Lehengo kantak zein taldekideek beraiek osaturiko kantak plazaratu zituen Ez Dok Amairuk, kanta konprometituak eta landuak. Konpromiso bera mantendu zuen Letek bere ibilbide poetikoan.

Baina artista plastikoak biltzen zituzten Gaur, Hemen eta Orain taldeekin gertatu bezala, Ez Dok Amairuri ere iritsi zitzaion desagertzeko unea. 1970eko hamarkadan gertatu zen hori, “Baga, biga, higa” ikuskizuna aurkeztu ostean.

Beste zenbait kantarirekin kolaborazioak ere egin zituen, hala nola Antton Valverderekin. Harekin batera, Lizardiren poesiei eta Txirritaren bertsoei ahotsa jarri zien 1975-1978 bitartean. Antzerkia ere jorratu zuen euskal teatro modernoaren oinarriak finkatzeko asmoarekin. Kolaborazio horretatik sortutako obrak Oiartzungo Intxixu antzerki-taldeak eszenaratu zituen.

Leteren abestigintzan bere poemek eta hitzek dute garrantzirik handiena, nahiz eta musika ere sarri berak konposatua izan. Hitz propioez gain beste poeta batzuen hitzak ere kantatu izan ditu Letek, esaterako, Lizardi edo Jacques Brel-enak; baita hainbat bertsolariren lanak ere. Era berean, hainbat abeslarik musikatu eta kantatu izan dituzte Leteren poemak eta abestiak; horien artean daude, esaterako, Mikel Laboa, Lourdes Iriondo, Antton Valverde, Benito Lertxundi...

Wikipedia. Egokitua

1. HE

IRAKURMENA

■ 1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. **Non egin zituen Xabier Letek ikasketa teknikoak?**
 - a) Donostiako La Sallen.
 - b) Tarragonan.
 - c) Pasaian.
2. **Ikasi beharrean zer egiten zuen Xabierrek?**
 - a) Poemak idatzi.
 - b) Lantegi batean lanean aritu.
 - c) Irakurri eta zinemara joan.
3. **Zein zen Jorge Oteizaren ametsa?**
 - a) Kantatzen hastea.
 - b) Ez Dok Amairu berreskuratzea.
 - c) Euskal kultura sustatzea.
4. **Zertan lagundu zuen Ez Dok Amairuk?**
 - a) Oteizaren helburuari erantzuten.
 - b) Diktadura-urteak laburtzen.
 - c) Garai ilunak argitzen.
5. **Zer abesti-mota kantatzen zuten Ez Dok Amairuko kideek?**
 - a) Lehengo kanta konprometituak, baina landugabeak.
 - b) Taldeko kideek egindako kantak, baita lehenago egindakoak ere.
 - c) Taldekide konprometituek egindako kantak bakarrik.
6. **Noiz desagertu zen Ez Dok Amairu?**
 - a) Gaur, Hemen eta Orain taldeak baino lehenago.
 - b) “Baga Biga Higa” ikuskizuna aurkeztu ondoren.
 - c) 1970eko. hamarkada baino lehen.
7. **Norekin egin zuen lan Xabier Letek?**
 - a) Antton Valverderekin, besteak beste.
 - b) Lizardi eta Txirritarekin.
 - c) Zenbait bertsolarirekin 70eko hamarkadan.
8. **Zer beste arlo landu zuen Xabier Letek?**
 - a) Antzerkia, Antton Valverderekin batera.
 - b) Antzerkia, baina arrakastarik gabe.
 - c) Antzerkia, euskal antzerki berria bultzatzeko.
9. **Norenak ziren Letek kantatzen zituen abestien hitzak eta musika?**
 - a) Gehienetan bereak ziren, baina besteen hitzak zein musikak ere erabiltzen zituen.
 - b) Musika berea zen beti; hitzak, aldiz, ez beti.
 - c) Letrak bereak ziren beti, baina bere hitzak beste batzuek ere kantatu ohi dituzte.

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN

1. HE

IRAKURMENA

■ 2. ariketa

Zigarro-egileen inguruko testua daukazu ondoren. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ZIGARRO-EGILEAK

Donostiako eta Bilboko tabako-fabriketan milaka emakumek lan egiten zuten XIX. mendean; ‘zigarro-egileak’ deitzen zieten.

XIX. mendean, tabakogintza izan zen emakumezkoaren enplegu nagusietako bat (gizonezkoenak baino nabarmen gutxiago ordaindua). Nagusitasun hori, gainera, areagotu egiten zen puruak eskuz egiteko eginkizunean. Horretan aritzen ziren emakumezko langileei *zigarro-egileak* deitzen zitzairen. Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Lanbide tradizionalak* izeneko webguneak kontatzen duen bezala, lanbide horrek garrantzi handia izan zuen garai hartako gizartean, emakumeari industrian sartzeko aukera eman baitzion.

Bilboko tabako-fabrika Begoñako elizatean kokatu zen, hiriburutik bi kilometrora, Santutxu izeneko leku batean. Farias eta Chica puruak eta Cigarrillos Pinos zigarroak egiteko espezializazioa hartu zuten. 1898an, bertan 488 emakumezko langilek egiten zuten lan.

Donostiako lehen tabako-fabrika Garibai kalean ireki zen, lehenago alondegia izan zeneko eraikinean, 1878an. Fabrika horretan ere puruak eta zigarroak egiten zituzten, baita Virginia tipoko tabako xehatuaren sortak ere. Donostiako industriako enpleguan eragin garrantzitsua izan zuen. Hala, 1987an, 693 langilek lan egiten zuten tabako-fabrika horretan (horietatik hogeita hamar bakarrik ziren gizonezkoak).

Emakume puru-egile bakoitzak bere jarlekua eta kandela bat eraman behar izaten zuen. Langileak ez aspertzeko, irakurri egiten zieten lanean ari ziren bitartean.

1912an fabrika berriaren asmoa martxan jarri eta hiru hamarkada geroago Compañía de Ferrocarriles del Norte-ren alboko instalazio berrietara eraman ahal izan zen. Donostiako tabako-fabrikako lanpostuak estimu handikoak ziren, eta bertan sartzeko lehentasuna izaten zuten bertan lanean ari ziren langileen familiakoek. Kontuan izan behar da garai hartan emakumeentzat ez zegoela lanerako aukera handirik.

Puru-egilearen ofizioak abilezia eskatzen zuen, eta horrekin eta esperientziarekin emaitza onak lortzen zituzten. Lanbidea, izatez, espezialista beteranoak lan egiten ikusiz eta ikasitakoa praktikatuz ikasten zen.

Ortzadar, 2011ko martxoa, 203. zenbakia. Egokitua.

1. HE

IRAKURMENA

■ 2. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. **Zenbat irabazten zuten emakume purugileek?**
 - a) Gizonezkoek baino gutxiago.
 - b) Gizonezkoek baino gehiago.
 - c) Gizonezkoek adina.
2. **Zergatik izan zuen garrantzi handia lanbide horrek?**
 - a) Emakumezkoek oso ondo egiten zutelako.
 - b) Emakumezkoek industriari sartzeko aukera eman zuelako.
 - c) Emakume asko langabezian zegoelako.
3. **Non kokatu zen Bilboko tabako-fabrika?**
 - a) Bilboko erdigunean.
 - b) Begoñako elizaren ondoan.
 - c) Bilbotik bi kilometrora.
4. **Zer egiten zuten Garibai kalean zegoen tabako-fabrikan?**
 - a) Puruak eta Virginia izeneko zigarroak egiten zituzten.
 - b) Puruak, zigarroak eta tabako xehatuaren sortak egiten zituzten.
 - c) Puruak eta zigarroak baino ez zituzten egiten.
5. **Zenbat langile ari ziren Donostiako lehen tabako-fabrikan 1987an?**
 - a) 700 lagun inguru ari ziren.
 - b) 693 emakume eta 30 gizonezko ari ziren.
 - c) 639 gizonezko eta 30 emakumezko ari ziren.
6. **Zer eramaten zuten emakume puru-egileek?**
 - a) Bakoitzak bere eserlekua eramaten zuen.
 - b) Bakoitzak kandela bat eta irakurtzeko liburu bat eramaten zituen.
 - c) Bakoitzak liburu bat eramaten zuten.
7. **Nortzuek zuten Donostiako tabako-fabrikan lanean hasteko lehentasuna?**
 - a) Donostiako emakumeek.
 - b) Bertan lan egiten zutenen familiakoek.
 - c) Estimua handia zuten emakumeek.
8. **Nolako aukera zeukaten lan egiteko garai hartako emakumeek?**
 - a) Garai hartako emakumeek ez zuten lanik egiten.
 - b) Tabako-fabrikan baino ez zuten lan egiten.
 - c) Ez zeukaten lan egiteko aukera handirik.
9. **Nola ikasten zuten lanbidea?**
 - a) Beteranoen ondoan jarrita.
 - b) Beteranoek nola egiten zuten ikusiz eta arituz.
 - c) Beteranoekin lan eginez.

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN

1. HE

IRAKURMENA

■ 3. ariketa

Donostiako Udaleko autobus-zerbitzuaren inguruko hiru albiste dituzu.

Lotu esaldia dagokion testuarekin.

Donostiako Udaleko autobus-zerbitzuen albisteak

WIFI konexioa

A

Martxoaren 22tik aurrera, DBUSeko autobusen AMARA-OSPITALEAK 28. linearen geltoki guztietan WIFI konexioa egongo da doan.

Donostiako Udalak ezarri dituen konexiorako puntu berriei esker, DBUSeko autobusen erabiltzaileek udalaren WIFI zerbitzuarekin konektatu ahal izango dira doan AMARA-OSPITALEAK 28. lineak dituen 28 geltokietan.

Hari gabeko konexioaren bidez gailu mugikorretatik Internetera sartzeko ez da tarifarik ordaindu beharko; bakarrik Hiritarren Txartela eduki beharko da, eta txartel hori eskuratzeko ere ez da ezer ordainduko.

Aipatutako autobus-linea DBUSeko autobus sarearen linea garrantzitsuenetakoa bat da, Boulevarra Ospitaleekin eta Miramongo Teknologia Parkearekin lotzen ditu eta. 2010ean erabiltzaile gehien zituen autobus linea da; izan ere, linea hori 4.844.191 bidaiarik erabili zuten.

Era berean, 2007az geroztik, hiru linea nagusiek UNE-EN 13816 arauaren arabera Kalitate Egiaztagiria daukate. Horrela, ziurta daiteke DBUSek egiaztatutako kalitatea duen zerbitzua ematen duela.

Donostia da autobus geltokietan autobus erabiltzaileei WIFI konexioa doan eskaintzen dien lehen hiria. Horrela, bistan geratzen da Donostiabusek aurrerapen teknologikoak erabiltzearen eta bere zerbitzuen kalitatearen alde egin duela apustu.

Hazkundera webgunearen erabileran

B

Azken 5 urteetan sekulako hazkundera egon da DBUSeko web-orriko bisita-kopuruan.

Hain zuzen ere 2010ean www.dbus.es webgunea 454.030 aldiz bisitatu da, eta 2009an, berriz, 349.425 aldiz. Horrek esan nahi du %30 igo direla bisitak aurreko urteko datuekin konparatuta.

2010ean web-orriak 1244 bisita jaso ditu egunean batez beste, 2009an batez beste jasotako bisita-kopurua gaindituta, 2009an egunean 957 bisita izan baitziren batez beste. Eta bisita bakoitzak 4 minutu egin ditu batez beste web-orrian sartuta, eta batez beste 5 orrialde kontsultatu ditu.

“Ibilbideen planifikatzailearen” bisitak

C

2009ko azaroan, DBUSek www.dbus.es bere web-orria berritu zuen eta diseinua aldatu zion, erabiltzaileek informazioa errazago bilatzeko. Erabiltzaileentzat oso baliagarriak diren beste funtzio batzuk gehitu zizkion, web-orria hobetu zen segurtasunari dagokionez zein informazioa bilatzeko azkartasunari dagokionez.

Web-orria osatzen duten atal guztietatik, "lineak eta ordutegiak" izenekoak izan da 2010ean gehien kontsultatu dena. Hain zuzen ere, 294.652 bisita izan ditu.

Linea guztien ibilbide eta geltoki guztiak Google Mapseko mapa batean daude marraztuta, horrela edozein erabiltzailek linea jakin bati buruzko informazioa eskuratzeko duenean ordutegiez eta linearen eskemaz gain ibilbidearen mapa eta bere geltokiak ikusten ditu.

Donostiako Udalaren web-orria. Egokitua.

1. HE

IRAKURMENA

■ 3. ariketa. Lotu esaldia eta testua

1. Erabiltzaileak errazago aurki dezake informazioa 2009tik aurrera.		A	B	C
2. Donostia izan da aurrena autobus geltokietan WIFI konexioa doan eskaintzen.		A	B	C
3. Zerbitzuak 2010ean 2009an baino ehun mila bisita gehiago izan ditu, gutxi gorabehera.		A	B	C
4. Mugikorretik Internetera doan sar zaitezke.		A	B	C
5. Gehien bisitatu den atalak ia 300.000 kontsulta izan ditu.		A	B	C
6. Zerbitzua sarearen linea garrantzitsuenean aplikatu da.		A	B	C
7. Zerbitzua erabiltzen duen pertsona bakoitzak bertan pasatzen duen batez besteko denbora aipatzen da testuan.		A	B	C

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN

1. HE

IDAZMENA

Oharrak:

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota. (Inprimakia betetzeko eskatzen bazaizu –eskaera, mezu elektronikoa–, ez egin eskutitz itxurako ezer).
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan hauexek hartuko dira kontuan:
 - eskatutako guztiari erantzun diozun,
 - ideiak garbi adierazi dituzun,
 - euskara nola erabili duzun: egoki, zuzen edota aberats.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU
ARIKETAK, HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN EGIN
BEHAR DITUZU

■ 1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **inprimakia bete** behar duzu.
Gutxienez 50 hitz idatzi behar dituzu.


GAIA: Etxe ondoko plazan baldosa irristakorra dago. Gaur irristatu, erori eta hanka apurtu duzu. Ospitaletik bueltatu zarenean, Interneten sartu eta udalaren web orrira jo duzu. Web orrian kexa jartzeko inprimakia aurkitu duzu. Azaldu zer gertatu zaizun, noiz, nola, zergatik... eta konponbidea eskatu.

■ 2. ariketa

Egoera kontuan hartu eta **erantzun mezu elektronikoari** aparteko orrian.

Gutxienez 100 hitz idatzi behar dituzu.

Zure lagun batek mezu elektroniko hau idatzi dizu:



Idatzi mezua

Bidali Gorde Baztertu

Norentzat:

Gehitu Cc | Gehitu Bcc

Gala:

Erantsi fitxategia Testu arrunta Egiaztatu ortografia

Kaixo, aspaldiko:

Zer moduz zabilta? Ni pozik, laster oporrak hartuko ditut eta. Kanpora joango naiz. Eta badakizu nora? Zu iaz egon zinen leku berera.

Nola ibili zinen han? Kontadazu zer egin zenuen, zer ikusi zenuen, hango ohiturak eta bizimodua...

Baduzu aholkurik?

Erantzun lehenbailehen, bidaia prestatu behar dut eta.

Muxu bat.

Idoia

Erantzun iezaiozu lagunari.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

1. HE / IRAKURMENA ERANTZUN ZUZENAK

- 1. ariketa: Aukera anitzeko galderak
- Irakurgaia: «Xabier Lete»

1.	B	6.	B
2.	C	7.	A
3.	C	8.	C
4.	A	9.	A
5.	B		

- 2. ariketa: Aukera anitzeko galderak
- Irakurgaia: «Zigarro-egileak»

1.	A	6.	A
2.	B	7.	B
3.	C	8.	C
4.	B	9.	B
5.	A		

- 3. ariketa: Lotu esaldia dagokion testuarekin.
- Irakurgaia: «Donostiako udal-autobus zerbitzuen albisteak»

Esaldia	1	2	3	4	5	6	7
Testua	C	A	B	A	C	A	B